

SARTU MUGIMENDUAN

Ekonomia Sozialaren Koaderno



AURKIBIDEA

2 **Sarrera**

4 **Unitate didaktikoa**

7 **Ekonomia sozialaren jatorria**

13 **Zer ematen du ekonomia sozialak?**

18 **Ekonomia soziala Euskadin**

39 **Bibliografia**

Sarrera

Ekonomiak beti izan du garrantzia handia gizartean, eta are gehiago gaur egun, planetaren egoera dela eta, non ikusi den osasun-krisiak agerian jarri duela gure ekonomien ahultasuna. Horrek geroz eta handiagoak diren desberdintasunak islatu ditu. Egungo sistema ekonomikoan, helburu nagusia da irabaziak pilatzea, gehiago beti hobeto dela dioen ideiarekin, bigarren planoan utziz izaera sozialeko kontuak.

Horregatik guztiagatik, **EGES Euskal Gizarte Ekonomia Sareak**, gida didaktiko hau egin du, haren eredia eta balioak Batxilergoko, Lanbide Heziketako eta Oinarrizko Lanbide Heziketako ikasleei ezagutarazteko eta transmititzeko; izan ere, gazte horiek Euskadiko gizartearen etorkizuneko eredia eraikiko dute.

EGES lankidetzako espazio integratzailea da, non eragileek eztabaidatu dezaketen eta ekonomia sozialaren ekintzak sustatu ditzaketen Euskadiko erakunde sozial guztietan, Euskadiko gizartea eta eragile instituzional, politiko eta sozialak sentsibilizatzeko Euskadiko ekonomia sozialaren hazkundearen onuren inguruan.

Euskadiko ekonomia sozialeko bost erakunde esanguratsuenek osatzen dute: **Konfekoop** Euskadiko Kooperatiben Konfederazioa; **REAS Euskadi** Ekonomia Alternatibo eta Solidarioen Sarea; **ASLE** Euskadiko Lan Sozietateen Taldea; **EHLABE** Euskal Herriko Lan Babestuaren Elkartea; eta **Gizatea** Gizarteratzeko eta Laneratzeko Euskadiko Enpresen Elkartea.

Ekonomia soziala eredu alternatiboa da, eta lehentasuna ematen die pertsonen kapitalaren aurretik. Ekonomia sozialeko erakundeak, enpresa- edo ekonomia-izaerako erakundeak izanik, ongizate soziala errentagarritasun ekonomikoaren aurretik jartzeko helburuarekin sortzen dira. Hau da, jarduera ekonomikoa xede soziala lortzeko bitarteko bat da, non guztiaren gainetik nahi den erakunde horietako pertsonen eta pertsonok gizarteratzen diren komunitateen garapen integrala.

Gidan 5 orduko unitate didaktiko bat dago, eta **Batxilergoko, Lanbide Heziketako eta Oinarrizko Lanbide Heziketako** hezkuntza-etapetara daude zuzenduta eta egokituta. **Helburu** nagusia da ikasleei ekonomia sozialaren balioak nahiz gure garapen-ereduan egin dituen ekarpenak eta hura osatzen duten enpresa eta erakundeetan dauden lan-aukerak transmititzea.

Gida honek irakasleei ezagutza horiek transmititzeko prozesuan lagundu nahi die, eta horretarako irakurketa-materialak, jarduerak, bideoak, bibliografia eta webgrafia eskaintzen ditu, hizkuntza argi eta zuzenean.

Hiru zati ditu gidak: Lehena **“Ekonomia sozialaren jatorria”** da, eta ekonomia sozialaren historia, jatorri eta forma juridikoaren sarrera bat da; bigarrenak **“Zer ematen du ekonomia sozialak?”** du izena, eta ekonomia soziala osatzen duten erakundeak eta printzipioak aztertzen ditu; azkenik, hirugarrenak **“Ekonomia soziala Euskadin”** du izena, eta EGES osatzen duten familiak eta haien abantailak ditu aztergai.

Ekonomia sozialak eredu sozial eta ekonomiko desberdina ematen dio hezkuntza-testuinguruari, balio etiko eta gizatiarrekin, non pertsona dagoen ereduaren erdigunean, frogatuz ekonomia eta enpresa beste modu batean egin daitezkeela, aldaketa-eragileak izanik. Ekonomia soziala hezkuntza-zentroetan sartzeak balioetan heztearen aldeko apustua egitea dakar, non ongizate komuna nagusituko den eta aukeren berdintasunaren aldeko alternatibak bilatuko diren.

Unitate didaktikoa

Sartu mugimenduan. Ekonomia Sozialaren Koaderno.

Unitate-zk.		Zikloak	Arloak	Ordu-kp.
	1	Batxilergoa Oinarrizko Lanbide Heziketa Lanbide Heziketa	Zehar kompetentziak eta diziplina barrukoak Laneko prestakuntza eta orientazioa	5
Oinarriak	Ekonomia soziala osatzen duten erakundeek jardura ekonomikoan pertsonak eta helburu soziala kapitalaren aurretik daude, eta guztiaren gainetik erakunde horietako pertsonen garapen integrala lortzea da helburua, baita erakunde horien komunitateena ere. Euskadin lurraldean duen presentzia handiagatik nabarmentzen da, eta ekarpen ekonomiko eta sozialagatik. Unitate didaktikoaren bidez ikasleei ekonomia sozialaren balioak eta gure garapen-ereduari egindako ekarpenak transmititu nahi zaizkie. Ekonomia soziala hezkuntza-zentroetan sartzea gizartearen onurarako irizpideak izango dituen hezkuntzaren aldeko apustua egitea da.			

Helburu orokorra	Helburu espezifikoak
1. Ekonomia soziala ikasleei transmititzea hezkuntza-arloan.	- Ekonomia sozialari eta haren printzipioei buruzko ezagutza- eta ulermen-elementuak partekatzea. - Ekonomia sozialaren sektoreko familia nagusiak ezagutzea. - Ekonomia sozialarekiko interesa sortuko duten elementuak transmititzea. - Ikasleak esperientziekin konektatzea, ekonomia sozialaren eredura hurbiltzeko. - Ekonomia sozialaren erakunde bat abian jartzeko oinarrizko ezagutzak ematea.

Metodologia	Oinarrizko gaitasunak
Unitate didaktikoa bi zatitan banatzen da: Lehena ekonomia sozialaren inguruko ezagutzak bereganatzean zentratuko da, eta bigarrena ekonomia sozialaren familien irakaskuntzan. Bi zatiek dagozkien jarduerak izango dituzte, teoria aplikatzeko eta ezagutzak finkatzeko. Metodologia horrek banakako eta taldeko lana ahalbidetzen du aldi berean, baita praktikan oinarritutako ikaskuntza ere; izan ere, ekintzak eta hausnarketak elkarri eragiten diote etengabe.	<i>1. Sozialak eta zibikoak:</i> Errealitateaz jabetzea fenomeno sozialak interpretatzeko, gatazkak ebatzi ahal izateko eta erabakiak hartzeko. <i>2. Ekimena eta espiritu ekintzailea:</i> Ekintzailtzari begira dauden aukerak hautematen ikastea. <i>3. Hizkuntza-komunikazioa:</i> Hizkuntza erabiltzea ahozko eta idatzizko komunikaziorako tresna gisa. <i>4. Ikasten eta pentsatzen ikastea:</i> Kritikoki pentsatzen ikastea, ongizate komunarekin lotutako irizpideak gehituz.

Edukiak	Baliabideak
1. Ekonomia soziala eta bere printzipioak. 1'5 ordu <i>Ekonomia sozialaren bideoak ikusi eta eztabaidatzea.</i> 2. Ekonomia sozialaren familien ezaugarriak 3'5 ordu <i>Bideoak ikustea eta EGES osatzen duten erakundeen fikziozko enpresa bat sortzeko urratsak.</i>	- Fitxak - PowerPoint - Ikus-entzunezko baliabideak

Ebaluazioa

- Ikasleen ebaluazioaren helburua da ekonomia sozialaren ikaskuntzaren inguruan hausnartzea.
- Irakasleen ebaluazioaren helburua da unitate didaktikoaren erabilgarritasunaren balorazioa egitea eta hobekuntzak gehitzea.

Ebaluazio-irizpideak:

1. Ikasleek badakite ekonomia soziala eta ekonomia nagusia bereizten.
2. Ikasleak gai dira ekonomia sozialaren erakunde desberdinak bereizteko.
3. Parte-hartzaileak gai dira eztabaidatzeko eta akordiotara iristeko.
4. Taldeak baloratzen du ekonomia sozialak eragile ekonomiko gisa duen garrantzia.

Ebaluazio-tresnak

- Ikasleentzako galdetegia, ikasitakoari eta gogobetetasunari buruz.
- Irakasleentzako galdetegia, unitate didaktikoaren hainbat konturi buruz.

01



Ekonomia sozialaren jatorria

1. jarduera

Ekonomia sozialaren inguruko eztabaida.

Helburuak

- Ekonomia soziala eta bere printzipioak ulertzea.
- Ekonomia sozialeko erakundeak ezagutzea.
- Ekonomiak gure egunerokotasunean duen garrantziaz jabetzea.

Metodologia

Lehen saioan 1. eta 2. gaiak aurkeztuko dira, eta ondoren eztabaida bat egingo da, ikasleen pentsamendu kritikoa, ulermena eta analisisa estimulatzeko.

Materiala

- Unitate didaktikoaren koadernoak.
 - *Ekonomia Sozialaren Koadernoak. "Sartu mugimenduan" EGES.2021*
- PowerPoint.
 - *EGES (2021) Ekonomia soziala.*
- Ikus-entzunezko materiala.
 - Bici envía. (2012, apirilak 25). *La Historia de los Pioneros de Rochdale* YouTube. https://www.youtube.com/watch?v=_UrfTZneepI
 - Chantier de l'économie sociale. (2015, abuztuak 24). *¿Qué es la economía social?* YouTube. <https://www.youtube.com/watch?v=4YWVrYoEdeU&t=2s>
 - Chantier de l'économie sociale. (2015b, abuztuak 24). *El impacto de la economía social* YouTube. https://www.youtube.com/watch?v=g2smtS7_H9Q

Iraupena: 1,5 ordu

Eztabaida errazteko galderak

- Zer nabarmenduko zenuke ekonomia sozialean?
 - Zer iruditzen zaizu autogestio-eredu hori?
 - Zein abantaila eta desabantaila ikusten dituzu ekonomia-eredu horretan?
 - Zerbait gehituko zenioke ereduari?
 - Ekonomia sozialaren hurbileko adibiderik ezagutzen duzu?
-

Ekonomia soziala langileen mugimenduaren harira sortu zen. Industria-iraultzan izan zen, pertsonen bizi-baldintzak okerrera egiten hasi zirenean; langileek bat egin zuten euren baldintzak babesteko eta kolektibo gisa antolatzeko.

1844an, Ingalaterra iparraldeko Rochdale herriko kotoi-fabriketan lan egiten zuten 28 artisauk lehen enpresa kooperatibo modernoa sortu zuten, **Rochdaleko aitzindarien sozietate parekidea**, Rochdaleko aitzindariak izenez ere ezaguna.

Jarduera: Ikusi Rochdaleko aitzindarien historiari buruzko bideoa (QR)



Ekimen horren sorrerako balioak izan ziren ondoren **erakunde kooperatibo**en printzipio bihurtuko zirenak, eta beste ekimen batzuei ere bidea ireki zieten: horiek ez zuten soilik beharra hartu proiektu kolektiboak sortzeko oinarri gisa, baizik eta baita funtzionamendu-egitura bidezkoagoak eta parte-hartzaileagoak eraikitzeko interesa ere, non bitartekoen jabetza (ekoizteko, kontsumitzeko...) langileen eta kontsumitzaileen esku zegoen, hau da, ekimen horiek aurrera ateratzeko interes handiena zutenen esku.

Ekimen guztiak langile-klasearen beharrak asetzeko sortu ziren eta **lan-, hezkuntza-, osasun- eta bizi-baldintza duinak** eskaintzeko.

177 urte geroago, herrialde gehienetan **hiru azpisistema** daude ondasun eta zerbitzuen hornikuntzan eta banaketan, euren logikekin: **merkatua, estatua eta ekonomia soziala**. Merkatura orientatutako azpisisteman, logika nagusia irabazi-asmoarena eta kapitala pilatzearena da. Estatuarenean, legitimitatea eraikitzea eta botere politikoa areagotzea da logika. Ekonomia sozialaren sektorean, proposatzen da kideen bizi-maila eta -kalitatea handitu eta bermatzea, hau da, gizartearen bizi-kalitatea hobetzea oro har.



‘Ekonomia sozial’ terminoa **80ko hamarkadan** hasi zen erabiltzen Europan, kooperatiben, mutualitateen, elkarten eta fundazioen lehen adierazpen bateratuak agertzen hasi zirenean. **Euskadi aitzindaria** izan zen lege-esparru kooperatiboa garatzen, eta 1982an Euskadiko Lan Sozietateen Taldea (ASLE) osatu zen. Aurrerago, Espainiako estatuan **lan elkartuaren lehen kooperatiba-konfederazioak (COCETA) eta lan-sozietateenak (CONFESAL)** sortzen hasi ziren.

90ko hamarkadan, gaur egun ekonomia sozialaosatzen duten erakundeak hazten eta indartzen hasi ziren.

1992an, **CEPES** sortu zen (*Ekonomia Sozialerako enpresa espainiarren konfederazioa*) sektorearen ordezkari gisa, eta bitartekari politiko nagusia izan zen agintaritzaren publikoen aurrean; 2000. urtean **Social Economy Europe** sortu zen, ekonomia sozialaren gutun berria onetsi ondoren, eta Europa mailan sektoreko erakunde kide guztiek partekatu behar zituzten gutxieneko ezaugarriak finkatu zituen.



**“Ekonomia soziala deitzen
zaio erakundeek eremu
pribatuan aurrera
eramaten dituzten
ekonomia- eta enpresa-
jardueren multzoari, euren
kideen interes kolektiboa
asetzeko edo interes orokor
ekonomiko eta sozialaren
(edo bien) alde egiteko.”**

Ekonomia sozialari buruzko martxoaren
29ko 5/2011 Legea. Estatuko aldizkari
ofiziala.

Madrilen, 2011ko martxoaren 30ean, 76.
zk., 333023-33033 or.

Baina, zalantzarik gabe, ekonomia sozialaren sektorearen aintzatespena, ikusgarritasuna eta garapena **Ekonomia Sozialari buruzko martxoaren 29ko 5/2011 Legea** onestearekin heldu ziren bai estatura bai Europar Batasunera. Legearen testuak ekonomia soziala definitzen du erakundeek eremu pribatuan aurrera eramaten dituzten ekonomia- eta enpresa-jardueren multzo gisa, printzipio hauekin bat etorritik interes orokor ekonomiko eta sozialaren (edo bien) alde egiteko:

02

Zer ematen du
ekonomia sozialak?



Ikusi bideo hau (QR): Zer da ekonomia soziala?

Desberdintasun nagusienetako bat zera da, nahiz eta **ekonomia sozialaren erakundeek** enpresa-izaera duten, **errentagarritasun ekonomikoarekin batera helburu sozialarekin sortzen direla**.

Izaera sozial hori erakunde ekonomikoak ezaugarritzeko funtsezkoak diren **hiru alorretan** islatzen da: erakundearen **helburua**, **erabakiak hartzeko** modua eta erakundeak sortutako mozkinak eta **soberakinak banatzeko** modua.

Beraz, ekonomia soziala osatzen duten erakundeen jarduera ekonomikoan **pertsonak eta helburu soziala kapitalaren aurretik daude**, eta guztiaren gainetik erakunde horietako pertsonen garapen integrala lortzea da helburua, baita erakunde horien komunitateena ere.

Sozietate zibilari **auto-antolatze**ko bultzada ematen dio, estatuak eta merkatuak konpontzen ez dituzten arazo eta beharrei erantzuteko, **eraldaketa sozialerako** bultzadaz gain.

Tokiko garapen iraunkorrarekiko konpromisoa du, eta kohesio sozialaren alde egiten du erantzukizun- eta elkartasun-irizpideekin.

EKONOMIA SOZIALAREN ERAKUNDEAK

- **Kooperatibak:** Egitura eta funtzionamendu demokratikoa dituzten enpresa-erakundeak dira. Bazkideen atxikipen boluntario eta irekian, kudeaketa demokratikoan, parte-hartze ekonomikoan, hezkuntzan, prestakuntzan, informazioan eta komunitatearekiko interesean oinarritzen dira.
- **Lan-sozietateak:** Enpresa mota horietan, **kapital soziala langileen esku dago gehienbat**. Gutxienez hiru eskatzen dira, eta osatzeko izapideak beste edozein merkataritza-sozietateren antzekoak dira.
- **Mutualitateak:** Pertsonen sozietateak dira, irabazi-asmorik gabe, egitura eta kudeaketa demokratikokoak, eta **aseguru-jarduera boluntarioa** egiten dute, Gizarte Segurantzaren aurreikuspen-sistemaren osagarri gisa.
- **Enplegu-zentro bereziak:** Lan-merkatuan aukera gutxiago dituzten **kolektiboenganako** konpromiso soziala. Plantilla desgaitasuna duten pertsonen ahalik eta kopuru handienak osatzen du.
- **Laneratze-enpresak:** Haien xedea da **kolektibo ahulenei laguntzea enplegurako sarbidea lortzen**, ekoizpen-jarduera bat eginda.
- **Arrantzaleen kofradiak:** Arrantza-ontzien armadoreen eta erauzketa-sektoreko langileen interes ekonomikoak ordezkatzeko dituzte.
- **Elkarteak:** **Desgaitasunarekin eta baztertutako pertsonen laneratzearekin** daude lotuta.
- **Fundazioak:** Irabazi-asmorik gabeko erakundeak dira, eta, sortu zituzten pertsonen borondatez, beren **ondarea** interes orokorreko helburu bati **lotuta** dute modu iraunkorrean.

Ekonomia sozialeko erakundeek izaera soziala dute



Helburu soziala errentagarritasun ekonomikoarekin batera



Pertsonak kapitalaren aurretik



Mozkinen banaketa



Jarraian zerrendatzen diren **4 ideia edo printzipioek** ekonomia sozialaren **DNA** irudikatzen dute, eta enpresa-praktika gisa islatzen dira.

- **Pertsonak erdigunean:** Helburua da kalitatezko enplegu egonkorra sortzea, pertsonen garapen integrala ahalbidetuko duena erakundeen barruan. Erakundeen izateko arrazoia da **pertsonari duintasuna emango dioten lan-baldintzak** eskaintzea.
- **Erakundeen izaera demokratikoa:** Erakunde mota horiek **berdinzaleagoak** dira; izan ere, errentak, kapitala eta boterea banatzen dute modu **parekideagoan**, lurraldearen kohesio sozialaren alde eginez eta **desberdintasunak ekidinez**; horrela, ez da gizarte-bazterketa egoerarik sortzen.
- **Enpresa-dimentsioa:** Erakunde horiek eragin ekonomiko esanguratsua dute. **Epe luzeko proiektu kolektiboaren iraunkortasuna** interes koiunturalen aurretik jartzen dute.
- **Komunitatearekiko konpromisoa:** Erakunde horiek **tokiko enplegua eta aberastasuna** sortzen dituzte, eta modu berdinzaleagoan banatzen dituzte. Berdintasun ekonomiko handiagoa sortzen dute, eta zailtasun gehiago dituzten pertsonen gizarteratzearen alde egiten dute.

Laburbilduz, ekonomia sozialak hau sustatzen du:

- **Pertsonen ahalduntzea**, kapital eta kudeaketan parte hartuz.
- **Aberastasuna** sortzea, hura **modu parekidean banatzea** eta mozkinak lurraldean inbertitzea berriro.
- **Ingurumen-iraunkortasuna**, kohesio soziala eta tokiko edo lurraldeko garapena.

Ikusi bideo hau (QR): Ekonomia sozialaren eragina



03



Ekonomia soziala Euskadin

2. jarduera

Enpresa-idea bat eraikitzen hastea ekonomia sozialetik abiatuta.

Helburuak

- Ekonomia sozialean ekiteko beharrezko tresnak ezagutu eta lortzea.
- Euskadiko ekonomia sozialaren parte diren familiak landu eta barneratzea.

Metodologia

Ikasgela 5 taldetan banatuko da, eta talde bakoitzari EGES osatzen duten 5 familietako bat esleitzeko zaio, ekonomia sozialeko ekimen bat diseinatzeko. Talde bakoitzak honako hauek zehaztu beharko ditu:

- Erakundearen izena
- Eskaintzen duen zerbitzua
- Helburua
- Izaera juridikoa
- Hasierako kapitala
- Finantzaketa
- Mozkinak
- Kolektibo hartzailea
- Antolatzeko modua

Bete taula hau: ``2. JARDUERA KO TAULA. Eranskinak'', eta talde bakoitzeko bozeramaileak proiektua aurkeztuko die gainerako ikaskideei.

Materiala

- Unitate didaktikoaren koadernoak.
 - *Ekonomia Sozialaren Koadernoak. ``Sartu mugimenduan'' EGES.2021*

- PowerPoint.
 - EGES (2021) *Ekonomia soziala*.
- Ikus-entzunezko materiala.
 - Konfekoop. (2012, martxoak 16). *Economía Social en Euskadi 2012*.
YouTube. https://www.youtube.com/watch?v=Z6QzhcCbP_M&t=2s
 - Konfekoop Euskadi. (2021, ekainak 10). *Asamblea General 2021 / 2021ko Batzar Nagusia*. YouTube. <https://www.youtube.com/watch?v=SaPxq5NeDIs&t=2s>
 - Prensa Coceta. (2015, urtarrilak 23). *¿Por qué una cooperativa?* [Bideoa].
YouTube. <https://www.youtube.com/watch?v=34bFw8Ffnfs&t=27s>
 - ASLE. (2016, otsailak 18). *Sociedad Laboral una forma diferente de hacer empresa desde ASLE*. YouTube. <https://www.youtube.com/watch?v=GexNsC5bt0o>
 - ASLE. (2017, otsailak 14). *Crea tu empresa con ASLE*.
YouTube. <https://www.youtube.com/watch?v=9Tu4MxGuFGA&t=7s>
 - EHLABE. (2018, otsailak 15). *Modelo Vasco de inclusión sociolaboral*.
YouTube. <https://www.youtube.com/watch?v=w5PIFy3wASE>
 - EHLABE. (2017, urriak 10). *Vídeo de experiencias 30 aniversario EHLABE*.
YouTube. <https://www.youtube.com/watch?v=FxMDfvIpROs>
 - GIZATEA. (2016, abenduak 20). *¿Qué es una empresa de inserción?*
YouTube. <https://www.youtube.com/watch?v=QbI9KqAIEFE&t=18s>
 - GIZATEA. (2017, urtarrilak 3). *Campaña Gizatea «Trabajamos por una sociedad mejor»*. YouTube. <https://www.youtube.com/watch?v=qo3AwBcWskU>
 - Alboan GKE. (2021, apirilak 21). *Economía Social. Resumen SESIÓN 1 - Desarrollo de la Economía Solidaria en el contexto actual*.
YouTube. <https://www.youtube.com/watch?v=eS5Eskr6wEQ>

- Estekak.
 - Esteken fitxa. Eranskinak.
- Laguntza-materiala.
 - 2. jarduerako taula. Eranskinak
 - EGES erakundeen fitxak. Eranskinak.
 - Ebaluazio-fitxak. Eranskinak
- Baliabide propioak
 - Ikasleek Interneteko bilaketak egingo dituzte taula betetzeko.

Iraupena 3,5 ordu

Hausnartzeko galderak

- Zerk harritu zaitu “eraiki” duzun enpresaren inguruan?
- Zure enpresa propioa sortu nahiko zenuke beste pertsona batzuekin?
- Zein alderdi baloratzen dituzu gehien enpresa batean?
- Uste duzu ekonomia sozialeko enpresa batek ongizate komunaren alde egiten duela? Zergatik?
- Ekonomia sozialeko enpresa bateko kide izan nahiko zenuke?

Ebaluazioa

Jarduera amaitu ondoren, ikasleek eta irakasleek dagozkien ebaluazio-fitxak bete beharko dituzte. Ikasleek irakasleei emango dizkiete ebaluazio-fitxak, eta azken horiek egingo dute balorazio orokorra.



Ikusi bideo hau (QR): Ekonomia soziala Euskadin

Historian zehar, Euskadiko ekonomia sozialak lotura estua izan du **kooperatibismoarekin**, eta erakunde kooperatiboek ekonomia sozialeko erakundeen erdia baino gehiago ordezkatzeko dute. Hala ere, ezin dugu hura soilik kooperatibismoarekin parekatu.

70eko hamarkadako industria-krisian **lan-sozietateak** sortu ziren, langileei erantzuna emateko eta jarduera ekonomikoa eta enplegua mantendu eta berreskuratzeko.

Hamarkada horretan sortu ziren **enplegu-zentro bereziak**, eta apur bat beranduago hasi ziren hedatzen **laneratze-enpresak**; enpresa horiek lan-alternatibak eskaintzen zizkieten lan-merkatuan sartzeko zailtasun bereziak zituzten kolektiboak.

90ko hamarkadatik aurrera garrantzia hartu zuten ekimen sozioekonomiko berriak, erakunde mota berriekin eta biztanleriaren sektore berriekin konektatu baitzuten; horri esker, balio-kate osoan (ekoizpena, finantzaketa, merkataritza, kontsumoa) proiektu alternatiboak garatu ziren, eta ekonomia pertsonen eta komunitatearen garapenaren eta gizarte- eta ingurumen-iraunkortasunaren zerbitzura jarri zuten.

2008an sortu zen **Gizarte Ekonomiako Euskal Behatokia**, non **Euskadiko ekonomia sozialaren familia** guztiak bildu ziren, baita Euskadiko 3 unibertsitateak ere. Orduan sortu zen, 2015ean, **EGES** (*Euskadiko Gizarte Ekonomia Sarea*), irabazi-asmorik gabe, *Euskadiko ekonomia sozialeko familia guztiak ordezkatzeko eta gure gizartean ekonomia sozialaren balio eta praktikak sustatu eta garatzeko.*

EAEko ekonomia soziala, oro har, 2018ko datuen arabera, **60.609 langilek** osatzen dute Euskadin, hau da, EAEko enpleguaren % **6,5** inguruk, eta **fakturazioa 8.500 milioi eurokoa** da gutxi gorabehera.

“Eusko Jaurlaritza. (2020, ekaina). *Gizarte-Ekonomiaren Estatistika. 2018 eta 2019ko aurrerapena.*
https://www.eustat.eus/elementos/ele0017400/estadistica-de-la-economia-social-vasca-2018-y-avance-2019-pdf-24-mb/info017413_c.pdf”

Ekonomia sozialaren datuak EAEn

2500

Enpresak osatzen dute ekonomia soziala

60.609

Langile

Izan ere, datu horien arabera, **ekonomia sozialak hobeto egin dio aurrea krisiari** autonomia-erkidegoko ekonomia orokorrak baino, enplegu-galera txikiagoa izan baita eta aurreko mailak berreskuratzeko zantzuak baititu.

Halaber, Euskadin guztira **2.500 enpresak** osatzen dute ekonomia soziala. Enpresa horien **fakturazioa 5.188 milioi eurokoa** da, eta nazioartekotzetik datoz. Gainera, azpimarratu behar da ekonomia sozialaren inbertsio-tasa %23koa dela, eta Euskadiko ekonomiarena oro har %17koa.

Horren aurrean, **EGESek** ekonomia sozialaren balioa azpimarratu nahi du **krisiari hobeto aurre egiten dion eredu** gisa, batez ere **kalitatezko enpleguari** eusten diolako. Krisia gorabehera, Euskadiko ekonomia sozialak enplegua sortu zuen 2011ra arte, eta nahiz eta 2012-2014 aldian enplegua eta fakturazioa murriztu ziren, bi adierazleak egonkortzea lortu du. Denbora-ikuspegi zabalagoarekin, azken hamarkadan Euskadiko ekonomia soziala hazi egin da magnitude guztietan.

EGES Euskadiko ekonomia sozialeko bost erakunde esanguratsuenek osatzen dute: **ASLE** Euskadiko Lan Sozietateen Taldea; **EHLABE** Euskal Herriko Lan Babestuaren Elkartea; **GIZATEA** Gizarteratzeko eta Laneratzeko Euskadiko Enpresen Elkartea; **KONFEKOOP** Euskadiko Kooperatiben Konfederazioa; eta **REAS Euskadi** Ekonomia Alternatibo eta Solidarioen Sarea.

KONFEKOOP

Euskadiko Kooperatiben Konfederazioa da, eta 1996an sortu zen.

Zifrak



1.300

Kooperatiba

59.000

Enplegu

1,4

Milioi bazkide

11.000

Milioiko fakturazioa

Konfekoop. (2021, maiatzak 22). Kooperatibismoa enpresa eredu gisa finkatu da. <https://konfekoop.coop/2021/05/21/el-cooperativismo-se-afianza-como-modelo-empresarial/?lang=eu>

Kooperatibak pertsonak erdigunean dituzten enpresak dira, eta jabeak kideak dira; haiek zuzentzen dituzte modu demokratikoan, euren behar eta aspirazio sozioekonomiko komunei erantzuteko. Balio eta printzipiotan oinarritutako enpresa gisa, lehentasuna ematen diote **justizia eta berdintasunari**, eta aukera ematen diete pertsonari epe luzean lana eta oparotasuna ekarriko duten enpresak sortzeko.



5,7%

Euskadiko enplegua guztira

Pisu handieneko familia dira EAEko ekonomia sozialean. Euskadiko enplegu totalaren %5,7 ordezkatzan dute. Beste kooperatiba-errealitate batzuetatik bereizten dituen ezaugarriak ditu, bai estatu-mailan eta bai nazioartean: aniztasun kooperatiboa, elkarlaneko kooperatiben dentsitatea, enpresa-izaera, industriaren pisu espezifikoak sektore kooperatiboan edo elkar-lankidetzaren garapena.

Kooperatibak definitzen dituen **ezaugarri** nagusia da **“pertsona bat, boto bat”** printzipioak gidatutako erakunde demokratikoak direla. Hori da desberdintasun garrantzitsuenetako bat beste enpresa mota batzuekin alderatuta.

Kooperatiben egitura demokratikoa honako hauek **osatzen** dute:

- **Batzar Nagusia** –organo gorena da, non bazkideak biltzen diren eta erabaki garrantzitsuenak hartzen dituzten.
- **Kontseilu Araupetzailea** –kooperatibaren kudeaketa- eta ordezkaritza-organoa da, eta Batzar Nagusiak aukeratzen ditu kideak.
- **Zaintza Batzordea.**
- **Gizarte Kontseilua** (hautazko organoa).



*Ikusi bideo hau (QR): 2021eko
Batzar Nagusia*


Kooperatiben xedea da **efizienteak eta lehiakorrak izatea euren helburu sozialak lortzeko**; horrez gain, puntakoak izan behar dira Euskadiko ekoizpen-ehunean, eta **berrikuntza-jardueretara orientatu** behar dira.

Auto-antolakuntza eta lankidetzan oinarritzen dira, baina lankidetzan hori ez da mugatzen pertsonen arteko harremanera erakundearen barruan, baizik eta potentzial guztia erakusten du kooperatiben arteko eta beste erakunde publiko nahiz pribatuekiko lankidetzan-harremanak finkatzen direnean.

Kooperatiben eta lurraldeko beste eragile batzuen arteko **elkartasun-mekanismo** jakinetan oinarritzen da lankidetzan, erronka sozioekonomikoak elkarrekin jorratu ahal izateko.

Printzipio kooperatiboak

- Atxikipen **boluntario** eta irekia.
- Bazkideen **kudeaketa demokratikoa**.
- Bazkideen **parte-hartze ekonomikoa**.
- **Autonomia** eta independentzia.
- Hezkuntza, **prestakuntza** eta informazioa.
- Kooperatiben arteko **lankidetz**a.
- **Komunitatearekiko** interesa.



Ikusi bideo hau(QR): Zergatik kooperatiba bat?

ASLE

ASLEk Euskadiko **lan-sozietateak** ordezkatzen ditu. 1982an sortu zen 56 enpresa eta 2.800 langilerekin. Une horretan, enpresa gehienak industria-sektorekoak ziren. Gaur egun **sektore arteko erakundea** da, non enpresak jarduera-sektore guztietan dauden.

ASLEren helburua da lan-sozietateak eta enpresak ordezkatu eta babestea; sozietate eta enpresa horien antolakuntza eta jabetza elkarren arteko kudeaketan eta autogestioan oinarritzen da.

ZIFRAK



800

Milioiko fakturazioa



600

Enpresa



6.925

Enplegu

ASLE. (2021, maiatzak 7). ASLE - Asociación Empresarial. ASLE - - Sociedades Laborales y Sociedades Participadas. <https://www.asle.es/>

Lan-sozietateak 3 **ezaugarri** izan behar ditu:

- **Kapital sozialaren zati handiena langileena da;** izan ere, haiek ematen dituzte bertan zerbitzu ordainduak, modu pertsonal eta zuzenean, lan-harreman mugagabe baten bidez.
- Bazkideetako inor ere ez da **kapital sozialaren herena baino gehiago ordezkatzeko duten akzio edo partaidetzen titularra, bi bazkidek (bakoitza kapitalaren % 50arekin) osatutako lan-sozietatea izan ezik.**
- Kontratu mugagabeekin kontratatutako langileen **urteko lanordukopuruak ezin du gainditu** langile bazkide guztien urteko lanorduen **kopuru totalaren % 49.**



Ikusi bideo hau (QR): Lan-sozietatea, enpresak egiteko modu desberdina (ASLE)


Lan-sozietatea eredu egokia da **ekintzailatza kolektiborako**; izan ere, aukera ematen die ekintzailatza-proiektu txikiei lan-sozietateen bidez egituratzeko.

Euskadiko lan-sozietateak erreferenteak dira **enpresak berregituratzeko eredu gisa**. Europan existitzen ez den enpresa-antolakuntzako eredu berezia da, eta lotuta egon da langileek krisi-testuinguruan enpresak berreskuratzeko prozesuekin.

70-80ko hamarkadan sortu zen, enpresariak zailtasunak baitzituzten enpleguari eusteko eta enpresa-proiektua aurrera eramateko.

Lan-sozietateen balioak

- **Parte-hartzea:** langileek kudeatzen dute.
- **Pertsonak erdigunean:** enpresaren eta pertsonen interesak kontziliatu.
- **Enpresa iraunkorra:** elkartasuna kideekiko eta konpromisoa gizartearekin.
- **Konpromisoa lurraldearekiko eta tokiko garapenarekiko:** kohesio soziala ingurunean.



*Ikusi bideo hau (QR):
Zergatik lan-sozietate bat?*

EHLABE

EHLABE 1987an sortu zen **desgaitasuna duten pertsonen gizarteratze eta laneratzea** sustatzeko.

EHLABE osatzen duten erakunde guztien funtsezko helburua da **kalitatezko enplegua sortzea desgaitasuna duten pertsonentzat**, lehentasuna emanaz laguntza-behar gehienak dituzten pertsoneri.

Gaur egun, Euskadiko 3 lurraldeetako **ekimen sozial eta publikoko 14 lan-erakundek** osatzen dute, eta lan-aukerak sortzen dituzte desgaitasuna duten 10.000 pertsona baino gehiagorentzat. Fakturazioa 370 milioi eurokoa da.

ZIFRAK



14

Ekimen sozialeko
lan-erakunde



291

Milioiko
fakturazioa



8.232

Lan-aukera desgaitasuna
duten pertsonentzat

Ehlabe. Laneratze eta gizarteratze Euskal Eredua desgaitasuna duten pertsonentzat. (2020).
2020KO BALANTZEA. Ehlabe.



Ikusi bideo hau (QR): Euskadiko laneratze- eta gizarteratze-eredua

EHLABEk laneratze- eta gizarteratze-eredu propioa du, zeinak barne hartzen dituen desgaitasuna duten pertsonen hiru enplegu-esparruak: **zerbitzu okupazionala, enplegu-zentro bereziak eta ohiko enplegua**. Horri esker, EHLABE **erreferente bihurtu da** Europa mailan, bai desgaitasuna duten pertsonen enpleguan eta bai ekonomia sozialean.

Eredua **pertsonen gaitasunetan** eta euren garapenean oinarritzen da, lan-aukerak sortzeko ingurune profesional eta lehiakorretan, pertsona bakoitzaren beharretara egokitutako **ibilbide pertsonalekin**.

Desgaitasuna duten pertsonak laneratzeko **enplegu-zentro berezi (EZB)** terminoarekin izendatzen ditu enpresa horiek legediak, eta 1960an abiarazi zen Euskadin desgaitasuna duten pertsonen laneratzeari, garaiko behar sozialari erantzuteko.

Enplegu-zentro bereziek enplegu babestuaren aukera eskaintzen dute, desgaitasuna duten pertsonen ezaugarrietara egokitutako lan-eredu espezifiko gisa.

Desgaitasunaren larritasuna dela eta ezin bada ohiko enplegura edo enplegu babestura sartu, zerbitzu okupazionalak **terapia okupazionala** eskaintzen dute zerbitzu sozialen sisteman.

Azken kasu horretan ez da lan-harremanik sortzen; izan ere, terapia okupazional moduan prestazio bat eskaintzen duen zerbitzu soziala da.

Ikusi bideo hau (QR): EHLABEren esperientziak



Jarduketa-ardatzak

- **Eragina eta eraldaketa:** modu proaktiboan eragitea legeen aldaketetan eta enplegu-politika aktiboen diseinuan.
- **Inklusioa eta enplegarritasuna:** erakundeen arteko lankidetzaren desgaitasuna duten pertsonen inklusioa eta enplegarritasuna biltzen duten proiektuetan.
- **Informazioa, ezagutzaren kudeaketa eta jardunbide egokiak:** funtsezko faktoreen ikerketa eta identifikazioa sustatzea, Euskadiko laneratze- eta gizarteratze-eredua indartzeko.



GIZATEA



Ikusi bideo hau (QR): Zer da laneratze-enpresa bat?

2007an sortu zen **GIZATEA Gizarteratzeko eta Laneratzeko Euskadiko Enpresen Elkartea**; haren helburua da gizarte justuagoa eraikitzea. Horretarako, **laneratze-enpresak sustatu eta babesten** ditu, eta horien eskura tresnak jartzen ditu haien funtsezko xedea bermatzeko: **bazterketa-egoeran edo -arriskuan dauden eta ohiko lan-merkatuan sartzeko zailtasunak dituzten langabeentzat aukera gehiago eta hobeak sortzea.**



Memoria soziala 2020 (<https://www.gizatea.net/wp-content/uploads/03.-Memoria-Gizatea-2020-cas-1.pdf>)

Irabazi-asmorik gabeko enpresak dira, eta, kalitatezko zerbitzuak eskaintzeaz gain beharrezko pertsona eta baliabide teknikoekin, beste edozein enpresa arruntek bezala, **aukera ematen diete desabantaila sozialean dauden pertsonen enplegu arruntak lortzeko**, laguntza-aldi baten ondoren eta lanpostu bat beteta.

Laneratze-enpresa baten **ezaugarriak**:

- Haren xede soziala da bazterketa-egoeran edo -arriskuan dauden eta lan-merkatuan sartzeko zailtasun bereziak dituzten langabeak **laneratu eta gizarteratzea**.
- Irabazi-asmorik gabeko **erakunde batek edo gehiagok sustatzen** dituzte, eta haien xede soziala da egoera bereziki ahulean dauden pertsonak gizarteratzea.
- Plantillaren % **50 eta % 75** artean **gizarte-bazterketa** egoeran edo **arriskuan** dauden **pertsonek** osatu behar dute.
- Laneratzen ari diren pertsonak laneratze-enpresan **egon** daitezke **gutxienez 6 hilabetez eta gehienez 3 urtez**.
- Ekitaldi bakoitzean lortutako soberakinak aplikatuko dira ekoizpen-egiturak hobetu edo hedatzeko edo laneratze eta gizarteratzearekin lotutako jarduerak sustatzeko, eta ez dira inolaz ere mozkinak banatuko.

Laneratze-prozesuen **ibilbide pertsonalizatua lan-ingurune erreal bateko prestakuntza praktikoarekin** konbinatzen dute. Pertsonek ibilbide pertsonalizatua egiten dute urtebete eta hiru urtez enplegua sustatzeko aldi baterako kontratu baten bidez, eta horrek euren enplegarritasuna hobetzen du; izan ere, prozesua amaitzean pertsona baldintza hobeagoetan egongo da ohiko lan-merkatuan enplegu bat lortzeko.



Ikusi bideo hau (QR): 'laneratze-enpresak: ate bat inklusiora'. Bideoak laneratze-enpresa bateko 4 langileren testigantza jasotzen du ibilbidearen une ezberdinetan (kontratazioaren aurretik, enpresan sartzean, enpresatik joatean eta ohiko lan-merkatuan sartzean).

Printzipioak:

- **Berdintasuna:** desabantaila sozialean dauden pertsonen **gaitasunak** **garatzea lan-eremuan**, lan-merkatuan sartu ahal izateko.
- **Inklusioa:** edo ohiko enplegu bat lortzeko aukera-berdintasuna **doikuntza indibidualeko estrategien** bidez zailtasunak dituzten pertsonekin, eta **doikuntza sozialeko estrategiak** sustatu inguruarekin.
- **Eraldaketa soziala:** gizarte bidezkoagoa eraikitzea **laneratze-enpresen** **sustapenaren bidez**, lan- eta gizarte-bazterketaren aurka borrokatzeko tresna gisa.



Ikusi bideo hau (QR): *Gizatea konpainia*

REAS

REAS Euskadi, Ekonomia Alternatibo eta Solidarioen Sarea, 1997an sortu zen, eta **Euskadiko ekonomia solidarioa** biltzen du.

Ekonomia solidarioak ekonomia aldarrikatzen du garapen pertsonal eta komunitarioaren zerbitzurako bitarteko gisa, **pertsonen ongizatearen eta haien ingurune sozial eta naturalaren** alde egin dezan. Kapitalismoaren osteko eredu sozioekonomiko parekideagoa eta banatzaileagoa bilatzen du.

Beste erakunde eta sare sozial batzuekin batera, ekonomia, gizartea eta planeta eraldatzen ahalegintzen da hainbat balioren bidez, besteak beste **elkartasuna, ekologia, feminismoa, parte-hartze demokratikoa eta inklusioaren bidez**.

Printzipioak



Ekitate

Pertsonak elkarri aitortzen diote eskubide eta aukera berdinak dauzkatela.



Lana

Pertsonen gaitasunak garatzeko.



Ingurumen-jasangarritasuna

Ingurumen-jasangarritasuna sartzea gure ekintza guztietan, gure ingurumen-eragina ebaluatuz.



Lankidetz

Pertsona eta erakundearen arteko lankidetzako ikaskuntza eta lana sustatzea.



Irabazi-asmorik gabe

Mozkinak berriro inbertitu eta banatzen dira.



Konpromisoa ingurunearekin

Tokiko garapen jasangarria eta komunitarioa.

Ekonomia solidarioak erakunde ugari biltzen ditu (kooperatibak, elkarteak eta fundazioak, laneratze-enpresak...) eta printzipio horiek partekatzen dituzte; gainera, formula juridikoa edozein delarik ere, **ez dituzte mozkin ekonomikoak banatzen euren erakundeetan.**



Ikusi bideo hau (QR): Ekonomia solidarioaren garapena egungo testuinguruan: erronkak eta aukerak.

REAS Euskadi REAS Red de Redes egitura konfederalaren parte da, lurraldeko beste 13 sarerekin eta sektoreko beste **laurekin** batera (horien parte dira Euskadiko erakundeak): Bidezko Merkataritzaren Estatuko Koordinakundea, Finantza Etikoen Mahaia, Energia Berriztagarrien Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Kooperatiben Batasuna, Ekonomia Sozial eta Solidarioaren Berreskuratzaileen Espainiako Elkarte (AERESS) eta erabilera-lagapeneko etxebizitza kooperatiboaren ekimenen elkarte. Nazioartean, Ekonomia Sozial eta Solidarioa Sustatzeko Kontinente arteko Sarearen parte da (RIPESS). (EGES. *La Economía Social Vasca. Cuaderno Profesor/a*)

Euskadin, halaber, ekonomia sozial eta solidarioaren, inklusio sozialaren eta hirugarren sektore sozialaren beste sare batzuetan hartzen du parte, baita beste mugimendu sozial eta herritarren plataforma batzuetan ere.

Haren **jarduketa-eremuak** honako hauen sustapenean oinarritzen dira:

- ✓ **Merkatu soziala** eraikitzean eta **kontsumo kritikoa**, kontzientea eta eraldatzailea hedatzean.
- ✓ **Politika publikoen sustapenean**, ekonomia solidarioaren ikuspuntutik, eta, zehazki, erosketa publiko arduratsuan.
- ✓ **Auditoretza sozialeko** tresna ezarri eta garatzean, baita lankidetzarako beste tresna batzuen ere.
- ✓ **Ekonomia feministaren** proposamenak garatzean, eta, zehazki, erakunde habitagarrien diseinua.
- ✓ **Ekintzailtza soziala, lankidetzako eta eraldatzailea** sustatzean, baita prestakuntza, ikerketa eta sentsibilizazio soziala ere.
- ✓ **Erakunde publikoekiko** eta beste sare nahiz mugimendu sozial eta eragile ekonomikoekiko bitartekaritzan eta **lankidetzan**.

Zifrak

82

Erakunde

3.100

Langile

3.800

Boluntario



Un nuevo impulso para REAS Euskadi en 2021. (2021, urtarrilak 15). [economiasolidaria.org](https://www.economiasolidaria.org/noticias/un-nuevo-impulso-para-reas-euskadi-en-2021/).
<https://www.economiasolidaria.org/noticias/un-nuevo-impulso-para-reas-euskadi-en-2021/>

Bibliografia

- EGES. La Economía Social Vasca. Cuaderno Profesor/a[PDF]
- Economistas Sin Fronteras. (d.g.). Economía en colaboración. Iturria:
http://www.economiasolidaria.org/files/DOSSIERES_EsF_12_Economia_en_colaboracion.pdf
- Red Vasca de Economía Social -. (d.g.). 2021EKO MAIATZAREN 3AN BERRESKURATUA, Eges.eus
gunetik: <https://eges.eus/es-eges>
- EHLABE. (d.g.). 2021EKO MAIATZAREN 5EAN BERRESKURATUA, EHLABE.ORG gunetik:
<https://www.ehlabe.org/es/portada/>
- ASLE - Asociación Empresarial. (2018ko apirilaren 5a). 2021eko apirilaren 29an
berreskuratua, Asle.es gunetik: <https://www.asle.es/>
- REAS EUSKADI – red de economía alternativa y solidaria. (d.g.). 2021eko apirilaren 27an
berreskuratua, Reaseuskadi.eus gunetik: <https://reaseuskadi.eus/>
- Konfekoop - Confederación de Cooperativas de Euskadi - Konfekoop. (2016ko otsailaren
19a). 2021eko apirilaren 26an berreskuratua, Konfekoop.coop gunetik:
<https://konfekoop.coop/>
- Gizatea – Asociación de Empresas de Inserción del País Vasco. (d.g.). 2021EKO MAIATZAREN
6AN BERRESKURATUA, Gizatea.net gunetik: <https://www.gizatea.net/>.
- Batxilergoko curriculum zehaztu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzen duen
irailaren 6ko 127/2016 Errege Dekretuaren II. Eranskina.
- Batxilergoko curriculum zehaztu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzen duen
urtarrilaren 15eko 46/2016 Errege Dekretua.